

UDAL ORTUEN ERABILERAREN ARAUKETA

REGULACION DEL USO DE LAS HUERTAS MUNICIPALES

1. ARTIKULUA.- ERABILERA ARAUAK

- Berrizko Udalak lursail bat alokairuan hartu du herri ortuen proiektua martxan jartzeko. eta erabilera, horren berariazko baimenagatik ematen da urtebeterako, bostera luzagarria.
- Erabiltzaileak ezin izango du lursailaren egitura aldatu, ezta elementu osagarriak gehitu ere.
- Ortua titular bakar bati esleituko zaio eta ezin izango du ez laga, ezta eskualdatu ere.
- Lursailaren erabilera baratzeko gauzak edo loreak era ekologikoan landatzeko baino ez da izango. Gehiengo altuera baimendua 1,5 m-koa izango da eta berariaz debekatuta dago Nekazaritza Ekologikoan indarrean dagoen legediak ez baimendutako produktu herbizidak, pestizidak eta ongari kimikoak erabiltzea. Herri ortuak ikuskatzeko teknikari arduradunak zehaztuko du zein jarduketa egin eta.
- Ezin izango dira nekazaritza-makina elektrikoak edo motordunak erabili, salbu interesatuak aldeztu aurretik baimena eskatzen badu eta jardueraren arduradunak berariaz baimena ematen badu. Edozein kasutan, lehenetsunez, jardueran emakidadunen eskura dagoen makinaria erabili beharko da, txanda, eguna eta ordutegia eta erabilera eskatuko da.
- Ezin izango da tranparik edo animaliak hartzeko metodo ez selektiborik erabili, ezta pozoia duten gaiak dituzten amuak ipini.

ARTICULO 1º.- NORMAS DE USO

- El Ayuntamiento de Berriz ha adquirido una parcela en régimen de arrendamiento para poner en marcha el proyecto de huertas municipales y su uso se concede por autorización expresa del mismo durante un año prorrogable hasta 5.
- El usuario no podrá modificar la estructura de la parcela, ni añadir elementos accesorios.
- El huerto será asignado a un único titular que no podrá cederlo ni traspasarlo.
- El uso de la parcela será exclusivo para el cultivo hortícola o floral practicado de forma ecológica, estableciendo una altura máxima permitida de 1,5 m, estando expresamente prohibido el uso de productos herbicidas, plaguicidas y abonos químicos no autorizados por la Legislación vigente en materia de Agricultura Ecológica. El técnico responsable de la supervisión de las huertas municipales será quién determine las actuaciones a realizar.
- No está permitido utilizar maquinaria agrícola eléctrica o a motor salvo solicitud previa del interesado y autorización expresa del responsable de la actividad. En todo caso, principalmente se deberá utilizar la maquinaria disponible en la actividad a disposición de los concesionarios, sujeto a solicitud de vez y adjudicación de día y horario e uso por parte del responsable.
- No está autorizado el empleo de trampas o métodos de captura no selectivos para la fauna, así como la colocación de cebos que incluyan sustancias venenosas.

- Ezin izango dira zuhaitz-espezieak landatu ortuan.
- Debeztatuta dago egiturak eraikitzea; esaterako, etxolak, txabolak, eserlekuak, lanabes-kutxak, etab. edo materialak biltegitratzea, arropak edo jardueraren arduradunak baimendu edo udalaren berariazko baimenik ez duen edozein elementu.
- Landutako produktuek “norberaren kontsumorako” izan behar dute, hortaz, ezin izango dira saldu.
- Ortuetan ezin izango dira animaliarik izan ala eduki, etxeakoak izan ala ez.
- Ortuetan ezin izango da, inolaz ere, animaliarik hazi ala ustiatu.
- Erabiltzaileek Udalak emandako egiaztagiria eraman beharko dute, nahiz eta baimenduta egon ortu bakoitzean hainbat pertsona egotea, betiere alde zuzenetik lursailaren titularrak identifikatu baditu.
- Ortuen lagapen-aldia amaitutakoan, parte-hartzaile bakoitzak bere ortua garbi eta hutsik utzi beharko du.
- Arrazoirik gabe ortua uztea (edo arduradunek nahikotzat hartzen ez duten argudioekin justifikatuta) 2 hilabete baino gehiagoko aldiaren, beraz galtzea ekarriko du.
- Adjudikaziodunek konpromisoa hartzen dute gaizki erabiltzeagatik kaltetuta, hondatuta edo galdu egin diren ondasun edo lanabesak konpontzeko edo ordezkatzeko.
- No se permitirá el cultivo en el huerto de especies arbóreas.
- Queda expresamente prohibida la construcción de estructuras tales como cabañas, casetas, bancos, cajas de aperos, etc. o el almacenaje de materiales, ropas o cualquier elemento no autorizado por el responsable de la actividad o salvo autorización expresa municipal.
- Los productos cultivados deberán tener una finalidad de “consumo personal”, no estando permitida su posterior venta.
- No se autorizará la presencia o tenencia de animales, domésticos o no, en los huertos.
- En ningún momento se permitirá la cría o explotación de cualquier animal en las huertas.
- Las personas usuarias deberán llevar la oportuna acreditación facilitada por el Ayuntamiento, permitiéndose en todo caso la presencia en cada huerto de varias personas siempre que estén previamente identificadas por el titular de la parcela.
- Al finalizar el período de cesión de los huertos cada participante deberá dejar su huerto limpio y vacío.
- El abandono del huerto por causas injustificadas (o justificadas mediante argumentos que los responsables juzguen insuficientes) durante un período superior a 2 meses supondrá la pérdida del mismo.
- Las personas adjudicatarias se comprometen a reparar o reponer aquellos bienes o utensilios que resulten dañados, destruidos o extraviados por el uso inadecuado de los mismos.

- Adjudikaziodunek konpromisoa hartzen dute jardueraren arduradunek uraskako uraren, ongarrien eta tresnen erabileraren gainean, eta orokorrean, ematen zaion edozein elementuren gainean ezarritako arauak errespetatzeko.
- Adjudikaziodunek konpromisoa hartzen dute jardueraren arduradunek ematen dizkieten argibideak jarraitzeko, ordena mantentzeko eta ortuen funtzionamendu ona ziurtatzeko.
- Adjudikaziodunek konpromisoa hartzen dute aisiarako ortuen emakidadunak diren aldetik komuneko instalazioen zaintza, mantentze eta garbiketa lanak egiteko eta horien eta guztion materialaren erabilera egokia bermatzeko.
- Udalak lursailaren erabilera eten egin ahal izango dio lagapen-hartzaileari arestian aipatutako arauen bat edo horietatik ondorioztatzen direnak ez betetzeagatik.
- Adjudikaziodunek Udalak ezarritako zabaltzeko eta ixteko ordutegiari egingo diote kasu. Ordutegiak leku ikusgaietan eta pasatzekoetan ipiniko dira, eta baita aldagaietan eta guztiok erabiltzeko lekuetan ere.
- Zaborra inguruetan horretarako jarritako gunek garbi batean utzi beharko da, eta lursailetan ez dira hondakinik egon behar.
- Lursailean bertan konpost bihurtu nahi ez diren hondakin organikoak, horretarako prestatutako parkearen gunean utzi beharko dira. Material-uzteak konposta sortzeko elementu arrarorik gabe egin beharko dira; esaterako; plastikoak, sokak, harriak, etab.
- Las personas adjudicatarias se comprometen a respetar las reglas que los responsables de la actividad establezcan en relación con el uso del agua de las albercas, los abonos, las herramientas y en general, de cualquier elemento que se le facilite.
- Las personas adjudicatarias se comprometen a seguir las indicaciones que les den los responsables de la actividad, para mantener el orden y asegurar el buen funcionamiento de los huertos.
- Las personas adjudicatarias se comprometen como concesionarios de las huertas de ocio a llevar a cabo las labores de cuidado, mantenimiento y limpieza de las instalaciones comunes además de garantizar el correcto uso de las mismas y del material común.
- El Ayuntamiento podrá suspender el uso de la parcela al/la cesionario/a por incumplimiento de alguna de las normas anteriores o las que se deriven de las mismas.
- Las personas adjudicatarias se atenderán a los horarios de apertura y cierre de las instalaciones fijados por el Ayuntamiento. Los mismos se colocarán en zonas visibles y de paso, así como en vestuarios y en las zonas de uso común.
- La basura se depositará en un punto limpio creado a tal fin en las inmediaciones, debiendo estar las parcelas libres de desechos.
- Los desechos orgánicos que no se pretendan compostar en la propia parcela se deberán de depositar en la zona del parque destinada al compostaje. Los depósitos de material se ejecutarán libres de elementos extraños como plásticos, cuerdas, piedras, etc. destinados a creación de compost.

- Erabiltzaile bakoitzak ureztatzea horretarako ontziekin egin du. Horiek ura prestatutako guztiontzako instalazioetatik (putzutik) lursail bakoitzera eramango dute.

- Cada persona usuaria realizará el riego utilizando recipientes al uso, que trasladaran el agua desde las instalaciones comunes preparadas (patines) hasta cada parcela.

2. ARTIKULUA.- MUGA ETA SARBIDEEN MANTENTZEA:

1. Udalak ezarritako ortuaren mugak errespetatuko dira, betiere.
2. Ezin izango dira lursailen jatorrizko trazadurak aldatu, ezta ondoko lursailekin batu.
3. Ez da onartzen lursailak ixtea, itxitura, edozein motako hesi, harri, adreilu, bloke edo eraikitze-elementuekin, mota edozein delarik ere.
4. Ortuak izateko lursailak zabalik utziko dira, eta ez da onartuko euren artean adar-aldaxkekin edo bestelako elementuekin ixtea, salbu Udalak horretarako baimena ematen duen.
5. Erabiltzailea ortura sartzeko bideen egoeraren arduraduna izango da, eta horrek eskatzen duen ohiko mantentzea egin beharko du.

3. ARTIKULUA.- ERABILTZAILEEN ESKUALDATZEAK:

1. Ortua titular bakar bati esleituko zaio eta horrek ezin izango dio, inolaz ere, hirugarren bati ez laga, ezta eskualdatu ere. Era berean, debekatuta dago beste bati okupazioa edo lursail osoaren edo zati baten erabilera baimentzea, ezta aldi baterako ere. Betebehar horiek ez betetzea, emakidaren iraungipen automatikoa ekarriko du. Hortaz, Udalak ahalmena izango du lursailaren jabetza berreskuratzeke.

ARTICULO 2º .- MANTENIMIENTO DE LÍMITES Y ACCESOS:

1. En todo momento se respetarán los límites de huerta establecidos por el Ayuntamiento.
2. No se podrá modificar el trazado original de las parcelas, ni unir las a parcelas colindantes.
3. No se permite el cierre de las parcelas con cierres, vallas de cualquier tipo, piedras, ladrillos, bloque o elementos constructivos del tipo que sean.
4. Las parcelas destinadas a huertas permanecerán abiertas sin que se permita cerrarlas entre ellas con estacas u otros elementos, salvo autorización municipal.
5. La persona usuaria será responsable del correcto estado de accesos a la huerta, debiendo llevar a cabo el mantenimiento regular que el mismo requiera.

ARTICULO 3º.- TRANSFERENCIAS DE USUARIOS:

1. El huerto será asignado a un único titular que no podrá cederlo ni traspasarlo a un tercero, bajo ningún concepto. Asimismo, queda prohibido permitir a otra persona la ocupación o utilización total o parcial de los terrenos, ni siquiera provisionalmente. El incumplimiento de estas obligaciones, determinará la extinción automática de la concesión, quedando facultado el Ayuntamiento para recuperar por sí mismo la posesión del terreno.

Horretarako, eta erabiltzaileak ez badu interesik edo jarraitu nahi ez badu ortuaren aprobetxamenduari, Udalaren esku utziko du.

2. Erabiltzailearen heriotza baja izateko arrazoia da, eta ondorioz, ortua Udalaren esku geratuko da.
3. Erabiltzaile baten ortua udal okupazio batek ukituta geratu bada, ortu berri bat jasotzeko orduan lehentasuna izango du.

4. ARTIKULUA.- APROBETXAMENDU-EPEA:

1. Lursailaren aprobetxamendua eta/edo erabilera urte naturaletarako emango da, urtez urte luzapenak eskatu beharko dira emakidarekin jarraitu nahi izatekotan.
2. Lagapen-epea amaitu aurretik, ortua beste urtebetez erabili nahi duen erabiltzaileak eskaera berri bat aurkeztu beharko du idatziz Udalean, uneko urtearen martxoan. Lehenengo aldi batean egiten ez bada, eta duen ikuskatze txostena aldekoa bada, Udalak horixe adieraziko dio, emandako epearen barruan eskaera egin dezan, hori igarotakoan egin ez bada, baja izateko arrazoia izango da. Bi urtetan zehar martxoan eskatzen ez bada, baja izateko arrazoia ere izango da.
3. Ezezko ikuskatze-txostena edo aldekoa ez dena, dagokion eskaera ez egitearekin batera baja arrazoia izango da.

A tal efecto, y en caso de no interesarle o no querer continuar la persona usuaria con el aprovechamiento de la huerta, la dejará a disposición del Ayuntamiento.

2. Es motivo de baja el fallecimiento de la persona usuaria, quedando la huerta a libre disposición del Ayuntamiento.
3. Una persona usuaria cuya huerta haya quedado afectada por una ocupación municipal, tendrá preferencia a la hora de concederse una nueva huerta.

ARTICULO 4º.- PLAZO DE APROVE-CHAMIENTO:

1. El aprovechamiento y/o uso del terreno se concederá por años naturales, debiendo solicitarse prórrogas anualmente, caso de querer continuar con la concesión.
2. Con anterioridad a la finalización del plazo de concesión, la persona usuaria que desee seguir usando la huerta durante un nuevo período anual, deberá presentar nueva solicitud por escrito ante el Ayuntamiento, durante el mes de marzo del año en curso. Caso de no hacerlo una primera vez, y poseer informe favorable de inspección, el Ayuntamiento comunicará al usuario dicho extremo para que realice su solicitud dentro del plazo que se le señale, pasado el cual, sin llevarla a cabo, será motivo de baja. La no solicitud durante dos años en el mes de marzo, también será motivo de baja.
3. El informe de inspección negativo o desfavorable, junto con la no realización de la correspondiente solicitud supondrá causa de baja.



Iturrizta 51 - 48240 Berriz
Tel.: 946 824 036 / 946 824 584
Faxa: 946 827 950
E-maila: udala@berriz.org
P4802300F
www.berriz.org

4. Lursailaren erabileraren gehieneko denbora 5 urtekoa izango da, eskaera berririk egon ezean. Kasu horretan, urtez urte luzatuko da eskaera berriak egon arte, Udalak berariaz eta idatziz baimendu behar dituenak.

4. El tiempo máximo por el que se podrá conceder el uso de un terreno será de 5 años, salvo, que no hubiese nuevas solicitudes. En su caso se prorrogará anualmente hasta que hubiese nuevas solicitudes, que deberá autorizar expresamente y por escrito el Ayuntamiento.